



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU LANAK ESLEITZEKO

DEIALDIA (OSTATUA ETA SARRERAK)

2017ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak pertsona bat kontratatu nahi du igerilekuen 2017ko denboraldirako, ostatuaz eta sarrerataz arduratzeko. Nahi izanez gero, bi lagun aurkez daitezke zerbitzu horretarako.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- Adinez nagusia izatea.
- Euskara menperatzea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

- Curriculum
- Lan eskarmentua
- Zerbitzua nola emanen den azaltzen duen txostena

4.- Hilabeteko lansaria hauxe izanen da: **756,00 euro + eguneroko sarrerak + ostatuko irabaziak**. Bi lagun aurkeztuz gero aipatutako kopuruak proportzionalki banatuko dira.

Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak egingen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak 50 euroko fidantza jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 15etik aitzin uko egiten bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- Hasiera: 2017ko ekainaren 23an (igerilekuak irekiko dira ekainaren 24an).
- Bukaera: 2017ko abuztuaren 28an (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 27an).

Eguraldiaren arabera, Udalak luzatu ahalko du igerilekuak irekita egoteko aldia, eta, horren baitan, kontratua ere luzatu ahalko da.

6.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne.
 - Instalazioen barneko mantenimendu eta garbiketari dagokionez, aste tartean udalak kontratatutako pertsona batek garbituko ditu komunak, aldagelak, etab, eta ostatuaz arduratzen den pertsonak egin beharko ditu lan horiek asteburuetan.
- Bertzeak bertze, lan hauek egin beharko dira: igerilekuko ontziak hustu eta garbitu, ostatu ingurua garbitu, mahaiak eta bankuak dauden ingurua garbitu, eta, oro har, ongi funtzionatzeko behar den guztia egin.
- Udal igerilekuak ireki aurretik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
 - Igerilekuetara sartzeko sarreren kontrola eraman, igerilekuen erabilera-arauegiak dioena kontuan harturik.
 - Aldagelen zerbitzuaz arduratzea.
 - Tabernako instalazioen kudeaketa. Horretatik sor daitezkeen etekin edo galerak kontratatuen esku izanen dira.
 - Azaldu beharreko edozein iradokizun edo berrikuntza Udalari jakinaraziko zaio. Udalak, bidezko iruditzen zaion maiztasunarekin, zerbitzua nola ematen den ikuskatuko du.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Elikagaien higieneari buruzko neurriak hartuko dira zerbitzua behar den bezala ematearren.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak erabakiko du.

Etxalarren, 2017ko maiatzaren 11n.